



HEZKUNTZA SAILBURUORDEAREN ETA LANBIDE HEZIKETAKO SAILBURUORDEAREN 2024KO URTARRILAREN 18KO JARRAIBIDEA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZA SAILAREN MENDEKO HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA, DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA, BATXILERGOA ETA LANBIDE HEZIKETA ESKAINTZEN DITUZTEN FUNTS PUBLIKOEKIN SOSTENGATUTAKO IKASTETXEETAN TELEFONO MUGIKOR ETA ERLOJU ADIMENTSUEN ERABILERA ARAUTZEKO ZENBAIT ALDERDIRI BURUZKOA.

Azken bi hamarkadetan, eta aurrekaririk gabeko erritmo esponentzian, teknologia digitalek erabat aldatu dute pertsonok komunikatzeko, sortzeko, partekatzeko eta ikasteko dugun modua. Teknologia digitaletan egindako aurrerapen handiek berresten dute beharrezkoa dela erantzun bat ematea berrikuntzekin lotutako erronka teknologiko, etiko eta sozialei; izan ere, aldatzen ari dira bizimodua eta lan egiteko era.

Testuinguru horretan, Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Planak (2022-2024) planteatzen du hezkuntza-maila guztietan sartzea teknologia digitalak, irakaskuntza- eta ikaskuntza-praktikak hobetzeko eta dibertsifikatzeko teknologia horien bidez, eta konpetentzia digitalak garatzeko. Plan honen xedea da, alde horretatik, Ikasleek, langileek, hezkuntza-erakundeek eta familiek mekanismoak izan ditzaten aprobetxatzeko teknologia digitalek irakasteko, ikasteko, komunikatzeko eta sortzeko eskaintzen dituzten aukera ugariak.

Komunikazio-teknologiaren aurrerapenak, bereziki telefono mugikorren erabilerak, eragin zuzena du ikasleen garapenean eta elkarreraginean. Alde horretatik, beharrezkoa da esparru digitaletan ere bizikidetzaren positiboa erraztuko duten ohiturak, jarrerak eta estrategiak bultzatzea; izan ere, teknologiek aukera eta hobekuntza berriak emateaz gain, arrisku- eta mehatxu-iturri ere badira, eta horiei aurre egin behar zaie.

Ziberbizikidetzaren posible izan dadin, beharrezkoa da hezkuntza-maila guztietako ikasleak informazio- eta komunikazio-teknologiaren erabilera seguruan hezteko, batez ere haien erabilera arautu behar duten printzipio moral eta etikoetan. Bizikidetzaren esparruan, eta Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako berezko Planaren baitan, Hezkuntza Sailak hezkuntza-komunitate osoarekin batera, urteak daramatza ildo horretan lanean. Horren erakusgarri dira ikastetxeen eskura jarri diren gidak, askotariko taldeak eta material didaktikoak.

Horregatik guztiagatik, beharrezkotzat jotzen da neurri eta erabaki pedagogikoak hartzea telefono mugikor eta erloju adimentsuen erabilerari dagokionez, haien erabilera egokia sustatzeko, eta, horretarako, beharrezkoa den prebentzioa, segurtasuna eta kode etikoa azpimarratzen dira.



APLIKAGARRIA DEN ESPARRU JURIDIKOA

Jarraibide hauek egiteko, lege-esparrua hartu da kontuan, jarraian zerrendatzen dena.

17/2023 LEGEA, abenduaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren Legeak digitalizazioari buruzko artikulua hauek jasotzen dira:

Artikulua 3.k) Digitalizazio etikoa eta arduratsua. Pertsonen aukera-berdintasuna, pribatutasunerako duten eskubidea eta ahalduak digitala bermatuz, zeina, ezinbestean, bitarteko teknologiko auditagarri, berrerabilgarri, libre eta gardenak erabiliz soilik lortu baitaiteke, eta tresna digitalen integrazio pedagogikorako esparru batean oinarrituta egin beharko baita.

Artikulua 4.f) Ikasleak digitalki ahalduak bizi behar duten gizarte teknologikoki aurreratuan trebatuta egon daitezen, batetik, digitalizazioari lotutako erabakiak hartzeko gai izan daitezen, erabiltzen dituzten tresnen gaineko kontrola eta ahalmena izanez eta tresna horiekiko mendekotasun oro saihestuz, eta, bestetik, parte-hartze sozial aktiborako eta burujaberako gaituak izan daitezen, baliabide teknologiko horiek modu etiko, inklusibo eta arduratsuan erabiliz, genero-ikuspegia txertatuz eta beren pribatutasuna eta datu pertsonalen babesa bermatuz.

Artikulua 89.1.e) Ikastetxeen eta ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen digitalizazio etikoa eta arduratsua garatzea, hezkuntza-komunitate osoa digitalki ahalduak eta irakaskuntza-metodologiaren euskarri izango diren material digitalen prestakuntza barnebilduz.

Artikulua 97.4.c) Adin-tarteen eta zikloen arabera ikasleen ahalduak digitala bermatzeko estrategia bat, digitalizatzea erabakitzen den ikaskuntza-irakaskuntza prozesu horietan bitarteko teknologikoak pedagogikoki nola txertatuko diren zehaztuz.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 28ko 4/2018 Legeak honako hau jasotzen du 29.3 artikuluan:

Lanbide-heziketako ikerketa harmonizatu egin beharko da ikaskuntza aurreratuen, ingurune digital berrien, sistema adimendunen eta garapen iraunkor eta integraziailearen esparruko ikerketa orokorrarekin, bai eta enpresa-munduarekin ere, bereziki ETEekin, erregelamendu bidez ezartzen diren tresnen bidez.

3/2022 LEGEAK, martxoaren 31koak, Lanbide Heziketaren antolamenduari eta integrazioari buruzkoak, 3. artikuluan (Printzipio Orokorrak), 1. puntuan (LHko sistema printzipio hauen arabera), L atalean garatzen da:

Produktzio-sektoreetan, bereziki digitalizazioarekin, trantsizio ekologikoarekin, ingurumen-iraunkortasunarekin, lurralde-berrikuntzarekin, osasunarekin eta pertsonen arretarekin zerikusia dutenetan, etengabe eguneratzea, azkar egokitzea

eta sortzen ari diren aldaketak eta premiak proaktiboki eta aldez aurretik detektatzea.

Gizartearen digitalizazio-prozesuak eragina du hezkuntzan, eta halaxe jasota dago indarrean dauden curriculum-dekretuetan. Hori horrela, maiatzaren 30eko, Haur Hezkuntza, Batxilergoa eta Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak, hurrenez hurren, arautzen dituzten 75/2023, 76/2023 eta 77/2023 dekretuetan, kompetentzia digitala ezartzen da funtsezko zortzi kompetentzien artean. Hala, Oinarrizko Hezkuntzako curriculumak ezartzen duen 77/2023 Dekretuak ikasleen irteera-profila definitzen du, eta haren gaitasun digitala ezartzen du, bizitza osoan gainditu beharko dituzten erronka nagusiei aurre egiteko prestatzeko, gaur egungo gizarteak, bereziki aro digitaleko kulturak, eskaintzen dituen era guztietako aukerak modu kritikoan aztertzeko eta aprobetxatzeko gaitasuna izan dezaten, haien onurak eta arriskuak ebaluatuz eta bizitza pertsonalaren eta kolektiboaren kalitatea hobetzen lagunduko duen erabilera etiko eta arduratsua eginez.

Lanbide-heziketaren esparruan, *Lanbide Heziketako Sistemaren antolamendua garatzen duen uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuak* "Produkzio-sistemari aplikatutako digitalizazioa" modulua barne hartzen du erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloen derrigorrezko enborrean.

Horregatik, curriculumaren garapenaren esparruan, eta ikaskuntza-prozesuari lotuta, gailu digitalak eskola-orduetan erabiltzea aurreikusten da, baldin eta beharrezkotzat jotzen bada ikasgelan programatutako jarduera didaktikoak garatzeko.

Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean erabat babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren Eskubideen, segurtasunaren eta erantzukizun digitalaren arloko prestakuntzari buruzko 33. artikulua jasotzen du, besteak beste, administrazio publikoek bermatuko dutela ikasleak gizarte digitalean erabat txertatuko direla eta baliabide digitalak modu seguruan eta giza duintasuna errespetatuz erabiliko direla. Zehazki, administrazio publikoek prestakuntza-etapa guztietan sustatuko dute Interneten erabilera egokia.

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoak. 7. artikuluan adingabeen adostasuna emateari buruzkoan jasotzen da:

1. Adingabe baten datuen tratamendua berak emandako adostasunean oinarritu ahalko da hamalau urte baino gehiago baditu, ez bestela. Horren salbuespena gertatzen da legeak guraso-ahalaren edo tutoretzaren titularren presentzia exijitzen duenean egintza edo negozio juridiko bat egiteko, zeinaren barruan tratamendurako adostasuna eskatzen baita.
2. Hamalau urtetik beherako adingabeen adostasunean oinarritutako datuen tratamendua bakarrik izango da zilegi guraso-ahalaren edo tutoretzaren titularrena badago, eta guraso-ahal edo tutoretzaren titular horiek zehazten duten helmena izango du.

Beraz, 14 urtetik beherako gazteek ezin dituzte sare sozialak legez erabili, ez eta sare horietan erregistratu ere, gurasoen edo legezko tutoreen baimenik gabe.

Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoak, bizikidetzaz-



esparrua arautzen du. Esparru horretan, ikasleek beren eskubideak baliatzen eta betebeharrak betetzen ikasi behar dute, gizartean eskubide osoko herritar gisa integrazteko beharrezko gaitasunak eskuratuz.

3/2005 LEGEak, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa denak, 4. artikuluan adin txikikoen pertsonen interes gorena arautzen da, antolamendu juridikoan xedatutakoaren arabera: “haurren eta nerabeen interes gorena, haien eskubideen babesa eta eskubide horien garapenaren bermea izango dira gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek haiei buruz hartzen dituzten erabakien eta gauzatzen dituzten jarduketa guztien oinarritzko printzipio gidariak. Orobat, haur eta nerabeekin zerikusi zuzena duten jarduketa publiko guztietan aintzat hartuko dira printzipio horiek, eta, zehazki, epaileek, herri-administrazioetako agintariak edo haur eta nerabeak zaindu eta babesteko erantzukizuna duten erakunde publiko edo pribatuak hartzen dituzten erabaki guztietan. Interes goren hori zer den zehazteko, adingabeko pertsonaren beharrian eta eskubideei begiratuko zaie lehenik, eta hark adierazitako iritzi eta nahiak kontuan hartuko dira, nahikoa ezagumen duenean; orobat, aintzat hartuko da hark familiaren eta gizartearen esparruan duen izaera bakana”.

Aipaturiko artikulua honela bukatzen du: “Haurren eta nerabeen interes gorena, haien eskubideen babesa eta eskubide horien garapenaren bermea beste edozein interes legezkoen gainetik egongo dira”.

Indarrean dagoen araudia kontuan hartuta, ondorioztatzen da telefono mugikorrek eta beste gailu elektronikoko batzuk erabiltzeko arauak ikastetxeen antolaketa- eta funtzionamendu-autonomiaren barruan daudela, testuinguru bakoitzaren berezitasunei erreparatuta gailu horien erabilera arautzeko. Arau horiek funts publikoekin sostengatzen diren ikastetxeen antolaketaren eta funtzionamenduaren erregelamenduan jaso beharko dira eta eskola kontseiluak onetsi beharko ditu. Gainera, hezkuntzako ikuskaritzaren eskura egongo dira.

Horregatik guztiagatik, Hezkuntza Sailburuordetzak eta Lanbide Heziketako Sailburuordetzak, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak ematen dizkien eskumenak erabiliz, jarraibide hauek ematen dituzte, funts publikoekin sostengatutako ikastetxeetan gailu digitalak erabiltzeari buruz:

Lehenengoa.- Funts publikoekin sostengatzen diren unibertsitateaz kanpoko ikastetxeek eta lanbide-heziketako ikastetxe bateratuek neurriak hartu beharko dituzte, 2024ko urtea bukatu baino lehen, eskola-jardunean gailu digitalen erabilera arautzeko, hau da, eskola-ordutegia, jolas-orduak, ikastetxeak eskaintako zerbitzuak (jantokia, garraioa...) eta jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak egiteko aldiak barne hartzen dituen denbora-tarteak arautzeko.

Bigarrena.- Neurri horiek sare publikoko eta sare itunduko haur Hezkuntza, lehen Hezkuntza, derrigorrezko bigarren Hezkuntza, batxilergo eta lanbide-heziketa eskaintzen dituzten ikastetxeen antolakuntza- eta funtzionamendu-erregelamenduetan jaso beharko da. Neurri horiek hezkuntza-komunitateari jakinarazi beharko zaizkio, eta aldi berean, telefono mugikorrek eta erloju adimendunak gehiegi erabiltzearen arriskuei buruzko sentsibilizazio-ekintzak sustatuko dira; bereziki, ziberjazarpena prebenitzeari buruzkoak.

Hirugarrena.- Ikastetxeek eskolako ziberjazarpena edo abusu-egoerak prebenitzeko jarduerak aurreikusi behar dituzte, baliabide teknologikoen bidez, bizikidetzaren planean,



orientazio- eta tutoretza-planetan eta ikastetxeko proiektu digitalean, prebentziozko jarrera proaktiboak eta mekanismoak areagotzeko.

Laugarrena.- Hezkuntza Sailburuordetzak 2023/2024 ikasturtean zehar berariazko materialak eta hezkuntza-komunitateari zuzendutako prestakuntza eskainiko ditu, Interneten eta gailu mugikorren erabilera seguru eta arduratsuari buruz.

Bosgarrena.- Hezkuntzako Ikuskaritzak jarraibide hauek betetzen direla zainduko du.

HEZKUNTZA
SAILBURUORDEA

María Begoña Pedrosa Lobato

LANBIDE HEZIKETAKO SAILBURUORDEA

Jorge Arévalo Turrillas